



KANALAK

- Komunikazio kanalak: Ez daukagu denda fisikorik zabaltzeko asmorik, bezeroekin harremanetan jartzeko udaletxetara joango gara gure proiektua aurkeztera eta proposatzera beraien herrian martxan jartzeko.
- Banaketa-kanalak: Gure baliabideak erabiliz, gure langileek eramango dituzte edukiontziak bezeroek eskatutako tokietara.
- Salmenta-kanalak: Salmenta harremanak mugikorrez edo e-mailez egingo dira. Gure telefono zenbakia publizitate bidez telebistan, irratian... agertuko da.

Bezeroarekiko harreman guneak dira kanalak. Bost fasez osatutako prozesua da, eta hauek dira fase horiek:

- Pertzepzioa: produktuak merkatuan nola funtzionatuko duen aurreikustea.
- Ebaluazioa: produktuak nolako arrakasta izango duen kalkulatzea.
- Erosketa: produktuak merkatuan duen funtzioa.
- Entrega: gure produktua eskatzen duten pertsonei hau helaraztea.
- Salmenta ondorengoa: gure produktuaren inguruan duten iritzia baloratzea.

